



MARTA IZENEKO PLAN BAT

Australiara neskame eta emaztegai bidali zituzten emakume haien istorioa

HISTORIA / Nerea GOTI

Gernikan, Melbournen eta Sydney-n batera antolatutako oroimen ekitaldiek oso ezaguna ez den istorio bat ekarri dute gogora: 60ko hamarkadan 'Marta' izenarekin burutu zen plana edo operazioa. Istorio hartako protagonistek, aldiz, gerora jakin dute plan bat zela eta ezagutu dituzte haren nondik norakoak. GAUR8k bildutako testigantzen arabera, garai hartan ez zekiten inongo operaziotan parte hartzen ari zirenik. Gazteak ziren, eta Australiara joateko aukera agertu zenean, urratsa egin zuten hainbat arrazoiengatik. Batzuk abentura bila joan ziren, frankis-

Hamahiru hegazkin heldu ziren Australiara neska gazteekin. Ezkongabeak eta elizkoi katolikoak izan behar ziren eta neskame zihoazen bi urteko ustezko lan kontratuarekin. Aurretik gizon gazteak lanera joanak ziren. Australiako Gobernuak migrazio zuri katolikoa nahi zuen. Frankismoak eta Elizak «Marta Plana» esan zioten.

moak ezartzen zuen bizimodu itogarritik ihes egiteko aukera baliatu zuten beste batzuek, dirua egitea beste arrazoi bat

zen edota hemen izan zitzaketen arazoak atzean uztea...

Hala ere, bereziki diseinatu-tako plan bat zegoen. Eliza Ka-

tolikoaren bedeinkapenarekin eta erregimen frankista eta Australiako Gobernuaren arteko akordio baten baitan, Estatu espainiarreko ehunka emakume, haien artean euskaldun asko, Australiara joan ziren lan egitera. Australiako Gobernuak herrialdea jendeztatu nahi zuen; Francoren gobernuak ezkontzeko adinean zeuden «emakumezko elizkoiak» jartzen zituen. 'Ezkongaien hegazkinak' bezala ezagutzen zituzten hegaldi haiek.



ORTIZEN IKERKETA

Natalia Ortiz Ceberio donostiarra doktorea eta ikertzailea da Hegoaldeko Gales Berriko Unibertsitatean. "El avión de las novias" dokumentalaren ikertzaile nagusia eta egilea da, Javier Castorekin batera. Emigrazio espainiarra ikertzen ari zen doktoretzarako 'Plan Marta'-ren berri izan zuenean. Ignacio Garciak idatzirik "Operación Canguro" liburuan, 1957-58 urteetan Queenslendera azukre-kanabera moztera joandako gizonei buruzko istorioan, aurkitu zuen Marta Planarekin joandako emakumeen inguruko informazio apurra. Ia daturik ez zeukan istorio bitxi hark piztu zuen gehiago ikertzeko nahia.

Ikerketa sakon bat izan da emailtza. «Emakume horiek dena gordetzen zuten», nabarmendu du GAUR8rekin telefonoz izandako elkarrizketan eta bildutako agiri, argazki eta bestelako material kopurua azpimarratu du. Izan ere, dokumentaletik kanpo geratutako informazio eta materialarekin liburu bat idazteko proiektuan dihardu Ortizek.

Garaiko hainbat dokumentu biltzeaz gain, 'martak' izenarekin ezagunak ziren haietako askorekin hitz egin du ikertzai-

Irudian, 1962. urtean Marta Plana-rekin Australiara joandako emakume gazte talde bat. Argazkia Natalia Ortiz Ceberio ikertzaileak bildutako dokumentazioaren parte da, ondoko orrialdeetan agertzen diren agiriak bezala. GAUR8



leak, baita une hunkigarriak bizi ere, harremana galdua zuten lagunak kontaktuan jarri ditu eta. Martxoan batera egindako oroimen ekitaldiak mugarri izan dira historia eta istorio pertsonalak berreskuratze prozesu horretan.

«KATOLIKOAK, JAKINA»

Joan den mendeko 50eko hamarkadan kokatu behar gara istoriora itzultzeko. Garai hartan, «Australiak lelo bat zuen: birpopulatu, hazi ala desagertu», gogoratu du Ortizek. «Im migrazioa behar zuten, eta bertan geratzeko eta erreproduzitzeko behar zuten immigrazio hori. Gizonak ekarri zituzten lehenik, lan egiteko bi urteko kontratuekin, azukre kanabera moztera, tabakoan aritzera... baina ez zuten kontuan hartu gizon horiek oso bakarrik sentituko zirela, eta horren ondorioz askok bi urte bete baino lehen, baita lehen urtea egin baino lehen ere, aberriratzeko eskatzen zuten, bakardadeagatik, urruntasunagatik... Orduan, Francoren

Gobernuari eta Australiakoari emakume ezkongabeak eta, jakina, katolikoak ekartzea bururatu zitzairen, herrialdea birpopulatzeaz gain katolizismoa barreiatsu nahi zutelako», azaldu du Ortizek.

Erligioa operazioaren gakoe-tako bat zen. Izan ere, Eliza Katolikoa plan horren bultzatzaileetako bat izan zen. Hamahiru hegazkin heldu ziren Australiara. Lehen emakumeak 1960ko martxoan heldu ziren, hamabi inguru ziren, eta greziar eta italiar emakumeekin batera iritsi ziren. «Desberdintasuna zen italiarrak eta, batez ere, greziarrak ahalordez ez-konduta zetoze, eta espainiarren artean batzuek senargaia edo neba zeukaten hemen, baina gehienak abenturara zetozen; ez zekiten Australia non zegoen, ezta zer egin behar zuten ere, neskame zetoze baina ez zieten esaten», zehaztu du.

Australiara joateko hautagaien bilaketan Elizak ardura handia hartu zuen. Arreba, aukide edo emaztegaien ize-

Ezkerreko irudian, Espainiako Migrazio Batzorde Katolikoak emakumei, bertan zeudela, bidaltzen zien idatzia. Etzekoei idaztea eta fedea gordetzea aholkatzen zien, besteak beste. Ondoko irudian, bidaia ordaintzeko 2.400 pezetako kuota baten ordainagiria. GAUR8

nak emateko eskatu zieten Australian lanean ari ziren gizonari. Ezkondu nahi zutenek baimena eskatu behar zuten. Errekrutamenduaren zati nagusia parrokien edo argitalpen katolikoaren bidez egin zuten. «Aurkitu dugun dokumentazioan, ezkontzeko adineko emakume ezkongabeak eta elizkoi katolikoak eskatzen zituzten», dio.

«HEZKUNTZA MUGATUKOAK»

«Beste detaile garrantzitsu bat» aipatu du akademikoak: «hezkuntza mugatuko» emakumeak nahi zituzten, eta horrek irakurketa argi bat du,

ikertzailearen ustez. «Etxe batean lan egiteko bi urteko kontratuarekin zetoze esaten zieten, eta epe hori betetzen ez bazuten, kontratua apurtu edo Espainiara bueltatu nahi bazuten, gobernu biek ordainduta-ko joan eta bueltako txartelen kostua itzuli behar zuten, eta hori pentsaezina zen, emakumeen urteetako soldata adina-koa baitzen kostua. Baina ez zekiten kontratu horrek ez zuela inolako legezko baliorik. Aurkitu ditugun agiriek diote emakumeek hezkuntza mugatua izan behar zutela. Nire ustez, sinatzen zutena ondo ez ulertzea eta galdera gehiegi ez egitea zen helburua».

Ortizek hitzetan, bi urtez lan egin behar zutela zioen agiria sinatu zuten, baina «ez dut lan kontratu bakar bat ere aurkitu, eta dena gordetzen zuten belaunaldi haiei esker agiri asko lortu ditut, hegazkinaren txartela, ordaindu behar zuten zatiaren ordainagiriak, azterketa medikuen erregistroak... baina kontratu bakar bat ere ez. Haiek diote

Eliza zen operazioaren ardatza Australian eta Estatuan, «ezkontzeko adineko emakume ezkongabeak eta elizkoi katolikoak eskatzen» baitziren, gogorarazi du Natalia Ortizek

Ikerlariaren hitzetan, abentura izan zitekeen arrazoietako bat, dirua egitea beste bat, baina frankismoaren arau itogarrietatik ihes egiteko aukera ere bazen hainbat emakumerentzat

kontratu bat sinatzen zutela, baina ez dut inoiz horrelakorik ikusi». Ezkongai gisa zihozela ere ez zekiten, berez «ez zituelako inork ezkontzera behartzen; egoerak berak behartzen zituen», azaldu du Ortizek.

Egoera ulertzeko gogoraz du emakume «gehienak 19 eta 25 urte bitarteko gazteak zirela, munduko beste muturrekoak, inoiz bidaiatu gabeak, ingelesez ez zekitenak eta, kasu askotan, etxean arrautza frijitu bat ere egiten ez zutenak. Bat-batean zortzi seme-alabako familia batekin lanean hasten ziren; batzuk familia maitekorrekin egon ziren, baina beste batzuetan oso jende gogorra eta maltzurra aurkitu zuten. Horregatik, Elizak dantza sozialak antolatzen zizkien, batzarrak, sermoiak gaztelaniaz... beste espainiar batzuekin elkartu ahal izateko. Ezkontza bakardadearen irtenebide gisa ikusten zuten, aurrera egiteko eta etxean sentitze-ko modu gisa».

Ortizek arabera, emakumeekin izandako elkarriketetan gehien harritu duena izan da ikustea «argazki albumak zabaldua, ezkontza asko daudela, denak zihozela denen ezkontzetara; familia baten modukoak ziren, ez zegoen besterik».

AUSTRALIA KONTSERBADORE HURA

Gizon eta emakume gazte haiek aurkitu zuten Australia haren errealtatea ere kontuan hartu beharra dagoela dio ikertzaileak: «Australia hura ez da oraingoa bezalakoa; oso kontserbadorea zen, arrazista... Arratsaldeko hiruretan dena zegoen itxita». Panorama horrekin, «jende hau etxeetan elkartzen zen, jaiak egiten zituzten... *Accion Catolica*-k ere



Australiara joandako lagunak, klubean. Natalia Ortiz ikerlariak azpimarratu bezala, komunitatearentzat oso garrantzitsua zen elkartzeko aukera ematen zuen klub bat izatea, urruntasunean, kultura, tradizioak... gordetzeko. GAUR8

antolatzen zituen horrelakoak», eta horrexegatik izan ziren hain garrantzitsuak Club Español edo geroago euskaldunek sortutako Gure Txokoa: komunitateak, elkartzeaz gain, etxeko hizkuntzan hitz egiteko edo jatorrizko kultura gordetzeko aukera zuelako. Jaiak eta dantzaldiak ez ezik, zozketak eta ekitaldiak izaten ziren, hizkuntza eskolak seme-alabentzat zein helduentzat... «Ezagututako zapore eta usainak ziren, barreak, umorea, dominoaren jolasa, kartak... Kontuan hartu behar duzu gazte horien artean tren batean inoiz ibili gabeak ere bazirela».

Azken ideia horretatik tiraka, Australian bizi den akademikoak aipatu du sekulako erronka zela Australiara lanera joateko erabakia hartzea, eta hala ere, batzuek ez zutela birritan pentsatu.

Ortizek dio bi profil nagusi aurkitu dituela: abenturara zihozan jendea eta erregimenetik eta zapalkuntza egoera hartatik ihes egin zuena, bate-tik, eta dirua egiteko ideiarekin joandako beste asko, bestetik. «Jende asko etortzen zen dirua egiteko asmoz, dirua

zuhaitzetatik ateratzen zela esaten baitzuten. Gizonak azkar erosten zituzten autoak, garai hartan Espainian luxuzko artikulua zirenak, argazki horiek herrietara bidaltzen zituzten eta jendeak pentsatzen zuen: 'Begira zein ondo dagoen hau, goazen'. Ez zuten txarra kontatzen».

«Emakume asko 'bi urtez lan egin eta banoa' fantasiarekin etortzen ziren. Ni ere bi urterako etorri nintzen eta 30 daramatzat», onartu du Natalia Ortizek.

Ikertzailearen ustez, ihes egin zutela esatea gustuko ez badute ere, oro har, inor ez da joaten abenturagatik munduaren beste muturrera. «Kasu guztietan aurkitu dudana pun-tua da oso emakume ausartak

Kontatu dutenez, latza izan zen hizkuntza, kultura eta bizimodu ezberdin batera egokitzea. Horrek eta urruntasunak oso harreman estuak eragin zituzten, baita Australiarekin ere

Australian izandako ekitaldietan ez ezik, Gernikan ere omendu dituzte «martak», Euskal Australiar Elkarteak eta Asociación Navarra Boomerang-ek bultzatuta

zirela, orduko Espainia frankista kontuan hartuta. Badago 'ama hil zitzaidan eta dolua gorde behar nuen eta zortzi anai-arrebez arduratu; Madrilerara joan nintzen eta Madriletik Australiara, eta Kanadara ere joango nintzatekeen' dioenik. Dokumentalean kontatzen dutenez, garai hartan dena zen bekatu, herrian ibaira joan behar zuten ur bila, igandez baino ezin zuten irten, nahi zuenarekin dantza egiten anaiak ez ziola uzten ere esaten du haietako batek... 'Gehiago ezin nuelako alde egin nuen' ez esatearren, beste gauza bat nahi zutela esaten dizute, baina lerro artean irakurtzen baduzu, inor ondo badago ez du alde egiten; ez orain, ez duela 60 urte», hausnartu du Ortizek.

Esperientzia gogorra izan zen betiere. Hizkuntza eta kultura ez ezagutzeaz gain, hara heldu, biribilean jarri eta emakume australiarrek aukeratzten zituzten banan-banan etxera neskame eramateko. Barneko langile gisa aritu behar ziren gero. Eta batzuetan senargaiek hartzen zituzten helden zirenean eta azukre kanabera soroetara eramaten zituzten, baina barrakoietan bizitzera, eta lan handiarekin, ezkontutakoak gizon ezkongabeez arduratzen baitziren, jaten emateaz, arropa garbitzeaz... Hori bai, etxeetan zeudenek baina askatasun apur bat handiagoarekin, eta komunitate giroan», dio Ortizek. Testigantza ugari ditu Ortizek, hitzek baino askoz gehiago esaten dutenak; hagineta mina izanda nagusiari nola esan ez zekienarena, adibidez. «Hunkigarriak dira lekukotzak eta hunkigarria izan da hamarkaden ostean elkartzeko aukera izatea», dio ikertzaileak.

Alboko irudian, Simo Isuskiza, zutik, lehena eskumatik hasita, eta Nieves Zubikarai, bere eskuman, gurpildun aulkian, Australiara joan ziren beste emakume batzuen ondoan, haien omenezko ekitaldian Gernikan.

Toribio M. BEARES SANTERBAS



OROITZAPEN ONAK DITUZTE, BAINA EZ ZEN ERRAZA IZAN: «NEGAR EGITEN NUEN ETA AMAREKIN GOGORATZEN NINTZEN»

Nieves Zubikarai Gandarias 21 urterekin irten zen Ondarroatik. Madrilgo komentu batean bete zituen 22ak, eta handik Australiara. «Ondo nengoen etxean, beharrik egin gabe. Nebek itsasoan egiten zuten lan, ahizpak josten eta nik prakak egiten ikasten. Ez neukan joateko beharrik», azaldu dio GAUR8ri. Baina Ondarroako lagun batzuk zeuden Australian, eta diru asko irabazten omen zuten, kontatu du erabakia hartzeko arrazoiak galdetuta. «Eta han ere txakurrak zapata barik».

Brisban hiriburu duen Queenslandera heldu zen, familia baten etxean lisatzekoa egin behar zuen, eta hasiera gogorra izan zen. «Triste egoten nintzen; etxeko gazteena nintzen, ume bat, galduta sentitzen nintzen han, dena berria...

Amaren maitasunaren falta sumatzen nuen», kontatu dio GAUR8ri. Bertan ezagutu zuen senarra, Tomas Monasterio, eta bertan ezkondu ziren. Hamabost urte egin zituen Australian Zubikarai; 19, senarrak. Arotza zen eta egurrezko etxeak egiten zituen beste lankide batekin. Azaldu duenez, ez zekien Australian ezkontzera bidaltzen zituztenik, baina bertan eraiki zuen bizitza senarraren ondoan. «Gabonetan hondartzara joaten dira han», eta halako batean ezagutu zuen Tomas. Haren ondoan lan egin zuen gero urte luzez, etxeak egiten. «Gizona mendira joaten zen beharrera eta ni beragaz, etxeak egiten, gizon baten moduan», gogoratu du. Bikotearen bi seme-alabak jaio ziren Australian. Hamabi urterekin etorri zen alaba Euskal Herrira eta 10ekin semea. Ez

dute oroitzapen txarrik, baina ondo gorde dituzte gogoan gurasoek egindako lanordu luzeak.

Simo Isuskiza 28 urterekin heldu zen Australiara. Hiru lagun ziren, bere ahizpa bat tartean. Haietako batek arazo bat izan zuen eta alde egin behar zuela esan zien. «Gure kabuz joateko dirurik ez geneukanez, uste dut Emigratziora joan ginela. Ingalaterrara edo Frantziara joan nahi genuen, baina Kanada eta Australia baino ez ziren geratzen, eta erabaki orduko Kanadan ere ez zegoen lekurik», azaldu du Isuskizak. Etxean Lourdesera joan nahi zutela esan zuten, ezin zutelako etxeko baimenik gabe alde egin, gogoratu duenez. Etxekoek benetako helmuga ezagutu zutenean «trauma bat izan zen», baina sarritan idazten zuten

handik eta gauzak baretzen joan ziren.

Australian, umeak gustatzen ote zitzaizkien galdetu zieten ahizpa eta biei eta elkarrekin bidali zituzten Pauleko San Bizente elkartearen umezurtz-etxera. «Hasieran kostatu zitzaigun, mundua aldrebes jartzen zitzaigun, baina oso jende ona aurkitu dugu han», dio bilbotarrak. Handik Melbournera joan ziren kontaktu baten bidez eta bertan ezkondu ziren bi ahizpak aldi berean. Itzulera ere elkarrekin egin zuten. Isuskizak dio oroitzapen onak dituela urte haiez, batez ere haien artean sortutako harremanaz, eta Club Español eta Gure Txoko aipatu ditu. Australia berriz ere bisitatuko lukeela dio, baina argi du itzuli behar zela: «Australiar berriak izango ginateke beti».